



4.6. DIRULAGUNTZA LERROA: GURASOAK ETA TUTOREAK: ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE IKASTARO HOMOLOGATUETAN PARTE HARTZEA – 2021. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1- Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da Errenteriako gurasoei (edo tutoreei) dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, 2021eko urtarrilean edo irailean irekitzen den matrikulazio kanpainen euskalduntze eta alfabetatze ikastaro homologatuak egiteko izen emateagatik. Lehiarik gabeko edo elkarren segidako konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko dira.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko kopurua

Dirulaguntza lerro honekin emango diren dirulaguntzen zenbatekoa 2021eko aurrekontuko partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1.1030.480.01.335.10 Dirulaguntzak: euskara ikasleen beka. 17.000 €. Egoki den kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

2021eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin behar du dauden kredituetara egokitze aldera.

3.- Pertsona onuradunak eta dirulaguntza eskatzeko baldintzak

Dirulaguntza honen onuradurak izango dira Errenterian errolatuta egon, bere kargu 18 urte baino gutxiagoko pertsonak dauzkatenak eta 2021. urtean euskalduntze eta alfabetatze ikastaro homologatuak egiteko matrikulatu direnak.

Dirulaguntza lerro honetarako aukera izateko, ikastaroaren amaieran, gutxienez, asistentziaren %85 egiaztatu behar du. Horretarako ikaslearen hasiera data hartuko da kontuan. Asistentzia faltak zurrizteko legeak baimendutako kasuen egiaztagiria baino ez dira onartuko.

Ikastaroan egindako aprobetxamendua zurrizteko, nahikoa izango da irakaslearen agiria aprobetxamendu hori ziurtatuz.

Ikastaroaren ordainketa mantendu egingo da nahiz eta ikasleak baja eman, ondorengo arrazoipean:

1- Ikasleren batek, lanean hasi, eta ordutegia dela-eta, ez badauka euskaltegiara joaterik, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).

2- Gaixotasuna, baldin eta mediku-ziurtagiri ofizial bidez egiaztatzen badu eskolara joateko ezintasun larria duela.



3.- Haurdunaldia, baldin eta mediku-txosten bidez egiaztatzen badu atsedean osoa hartu behar duela.

4. Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek Udalak emandako inprimaki normalizatua (Eranskin honetan agertzen dena) aurkeztu beharko dute.

Eskari orria euskaltegiaren oniritzia eta zigiluarekin soilik onartuko da.

Horrezaz gain, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- NAN

- Familia liburuaren fotokopia, edo guraso edo tutore izatearen egiaztagiria.

5.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea ikastaroa hasten denetik 15 lanegunekoa izango da.

6.- Dirulaguntza kopurua eta ordainketa egiteko era.

Euskalduntze eta alfabetatze ikastaro homologatuetara joateari dagokienean, gehienez honako dirulaguntzak emango dira:

- * Matrikularen %50 aurreratuko zaio dirulaguntza eskatzaileari, eta honek baimena emango dio Udalari "endoso" bidez dirulaguntza hori zuzenean euskaltegiari ordain diezaion. Ordainketa egiteko era hau aukeratu da dirulaguntza eskatu den helburu horretarako erabiliko dela ziurtatzeko.
- * Horrezaz gain, matrikularen %30 ikastaroan zehar gutxienez %85eko asistentzia eta aprobetxamendua justifikatzen baditu ikastaroa amaitu eta ondorengo 10 laneguneko epean.
- * Dirulaguntza, gehienez, matrikularen %80koa izango da.
- * Barnetegien kasuan, formazio gastuak soilik diruz lagunduko dira. Beraz, ostatu, mantenu eta garraio gastuak ikasleak ordaindu beharko ditu.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako matrikularen kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa bi epetan egingo da: dirulaguntza onartutakoan %50 ordainduko da, eta gainontzeko %30a, %85eko asistentzia eta aprobetxamendua justifikatzean.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRENERIAKO UDALAK 2021 URTEAN DIRULAGUNTZAK



EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.